

2. SEGMENTAZIOA

Lehen esan bezala, enpresa aurrera ateratzeko beharrezkoak dira bezeroak. Enpresa aurrera eramateko lehendabizi gure xede-publikoa zein den argi izan behar dugu. Gure kasuan, animaliak dituen jendea da gure xede-publikoa. Behin gure xede-publikoa identifikatu ondoren, haiei egokitutako produktuak eta zerbitzuak eskaintzen ahalegindu gara.

Bezeroen beharrak hobeto asetzeko ezaugarri komunak arabera sailkatu ditugu. Horretarako, galdera batzuk erantzun beharko ditugu:

- **Norentzat sortzen dugu balorea?**
 - Animaliak dituzten pertsonentzat gehienbat. Baina animaliak adoptatu nahi dituztenentzat ere bai.
- **Zeintzuk izango dira ukituko ditugun segmentuak negozio-eredu honen bitartez?**
 - Animaliak zaindu ezin duten jendea, asko bidaiatzen duten jendea eta animaliak zeinekin utzi ez duenak...
- **Gehienez, zenbat bezero izan ahal ditugu?**
 - Gure bezeroak zerbitzu desberdinak jasotzera etortzen dira. Batzuk adibidez ile-apaindegira edo albaitaritzara bakarrik etortzen dira eta ordu horretan ile-apaindegian edo albaitaritzan bezero bat bakarrik izango dugu. Aldiz paseoak emateko zerbitzua, zaintza zerbitzua, heziketa eta kalean dauden animaliak jasotzearen zerbitzuarekin lotura duten bezeroak aldi berean asko izaten dira. Ez dugu gehieneko muga finkorik.
- **Zeintzuk izan daitezke gure bezero garrantzitsuenak?**
 - Denbora askorako kanpora joan behar dutenak eta animaliak zaintza zerbitzuan uzten dizkigutenak, animalia hezitzeko lan eta laguntza asko behar dutenak eta animalia asko dituzten pertsonak.

Galdera hauek erantzunda, enpresa zer merkatu-segmentazio motara zuzenduko dugun jakingo dugu. Hau da, gure negozioa zeini zuzenduta egongo den finkatuko dugu. Merkatu-segmentazioa finkatu ondoren, zehaztasunez gure negozio-eredua diseinatuko dugu.

Gure kasuan, bezeroen segmentazioaren arabera, merkatu-nitxo motako segmentazioaren barne gaude. Segmentazio mota honetan, bezeroak oso zehatzak eta bereiztuak dira. Gure kasuan, animaliak zaindu ezin dituzten pertsonak, lanpetuta daudenak, ezgaitasunak dituztenak... Bertan, bezeroarentzako neurriak diseinatutako zerbitzuak ditugu, behararen eta denboraren arabera.